

# Demokrazia parte-hartzailea: ezkerren helburu berria?

Asier Blas Mendoza  
EHUko Parte Hartuz ikerketa-taldeko kidea

Gaur egun ezagutzen dugun *Mendebaldeko demokrazia*, XVIII. mende amaieran jaio omen zen. Hain zuzen ere, Amerikako Estatu Batuen sorrerarekin eta Frantziako Iraultzarekin. Dena den, XIX. mendean eta XX. mendeko lehen erdialdean mamitu zen, egun ulertzen dugun moduan. Garai hartan, “demokrazia” ordezkatzailerik murriztuetan emakumeek eta langileek ez zuten eskubiderik hauteskundeetan parte hartzeko. Gizonezko aberatsek aldiz, lasai asko hautatzen zituzten euren ordezkari politikoak Mendebaldeko herrialde askotan. Gaur egun, ordea, lanordu gutxiago egiten dituzte pertsonak Mendebaldeko herrialde aberatsetan, bizitza-ereduak nabarmen aldatu dira eta aisia handitu egin da. Horren aurrean, taxuzko aldaketa gutxi izan ditu sistema demokratikoak, eta funtsean, berdinak jarraitzen dute izaten erakundeek.

Halere, Berlingo harresia erori ostean, baikortasun demokratikoa zabaldu zen munduan. “Demokraziaren” garaipena aldarrikatu da *Gerra Hotza* ren amaierarekin. Baina zein dira inposatu diren demokrazia-ereduak? Denak ordezkagarritasunean oinarriturikoak, eta gainera, orain 150 urte baino gehiago erditutako erakundetze-formetan. Orduetik ez al dira aldatu gure gizarteak?

*Western Democracy*, as we know it today, is said to have been born at the end of the 18th century, with the dawning of the American and French Revolutions to be exact. Nevertheless, it took shape in the 19th and first part of the 20th century as we know it today. In those days, women and workers had no right to take part in elections in those restricted representative “democracies” while rich men had a free hand at choosing their political representatives in many Western countries. Nowadays, however, in rich Western countries where people work fewer hours, models for living have changed while leisure time has increased. In face of this, the democratic system has undergone few fitting changes and institutions basically have remained the same.

However, after the fall of the Berlin Wall, democratic optimism has spread across the world. “Democracy” was declared to be the winner at the end of the Cold War. Nevertheless, what democratic models have been imposed? All of them are based on representation and, furthermore, in manners of institutionalization that are over 150 years old. Have our societies not changed since then?

## 1. Demokrazia ordezkatzaileria

Egungo demokrazien egoera aztertzen duten politologoaren artean, ordezkagarritasunean oinarrituriko demokrazia-ereduaren ikuspegi nahiko negatiboa zabaldurik dago (Sartori, Dahl, Linz, Manin e.a.). Deliberazio-gune publikoak desagertuz joan diren heinean, politika-ikuskitzaren kontsumitzaile pasiboak balira bezala ageri dira herritarrek gaur egun (Sartori, 1998). Horregatik, askotan ikusi dugu hedabideek markatzen dituztela alderdi politikoen agendak.

Indartuz doan azken errealitate hori uztartu da sistema demokratikoek erabakiak hartzeko garaian bizi duten legitimazio-arazoekin. Demokrazia ordezkatzaileriak duen atxikimendua, beraz, ez dago mementorik onenean. Sistema guztien artean kalte txikiena sortzen duena delakoan ematen zaio legitimazioa (Churchill-ek azaldu bezala); baina horrek ez du esan nahi erregimen on bezala definitzen denik inondik inora. Duen izaera demokratiko eskasari zuzentzen zaizkio kontrako kritika nagusiak. Lau urtetik behin bozkatu egiten dute herritarrek, eta segidan, horien nahiak eta iritziak erabat ahaztu egiten dituela botereak salatu ohi da.

Kritika hauen aurrean, eraginkortasuna eta, batez ere, zuzeneko demokrazia bat garatzeko dauden arazoak aipatzen dituzte demokrazia ordezkatzailerien aldekoek. Posible denaz (ordena) eta posible ez denaz (anarkiaz) hitz egiten dute. Izan ere, parte-hartzearen eta ordezkagarritasunaren artean, deliberazioaren eta delegazioaren artean, eta erabaki demokratikoen eta erabakiko dutenen hautaketa demokratikoaren artean egon den tentsioa ez da berria eztabaida politiko ideologikoan. (Santos, 2003:8).

Eztabaida horretan, baina, XX. mendean garaile bat egon bada, hori da demokrazia ordezkatzaileria. Dagoeneko aipatu den bezala, inork gutxi jarri du zalantzan bere balioa. Dena den, demokrazia berrindartzeko udal-mailan parte-hartzearen zabalkunde bat eskatu dutenak, gero eta gehiago izan dira 70eko hamarkadatik aurrera. Askotarikoak dira aipatzen diren argudioak: bestelako estilo bat sortzen du gertutasunak; demokraziaren gabeziak gainditzeko aukera handiagoak ditu tokian tokiko administrazioak; konfiantzazko harremanak sortzeko gai da hurbiltasun administrazioa; aukera berri asko dago teknologia berrien garapenarekin eta abar.

Abantailen diskurtsoak arrakasta lortu du emeki-emeki. Horregatik, Euskal Herrian eta munduko zenbait herrialdetan ireki dira herritarren partaidetzarako zenbait tarte azken bi hamarkadetan. Gero eta gehiago dira politika publikoetako prozesuetan parte hartzen ari diren agente zibilak. Era berean, gero eta gehiago dira partaidetza bideratzeko figurak erakundetzen ari diren udalak egunez egun, eta horien inguruan sortzen ari diren esperientziekin batera, guztiek garamatzate emaitza berera, hots, demokrazia berrindartzeko aukera politiko eta administrazio baten ikuspegi batera. Baina zein zentzutan? Zer helburu bilatzen dute herritarren parte-hartzea astintzeko esperientzia hauek?

1989 arte, demokrazia ordezkatzaileria osatzea izan zen ikuspegi hedatuena. Baina, inflexio-puntu bat markatu zen Brasilgo 1988ko udal-hauteskundeetan: 36 udalerritan (Sao Paulon, Porto Alegren, Belo Horizonten...) lortu zuen garaipena

PTk (Langileen Alderdiak), eta horri esker, guztietan ireki ziren partaidetza-prozesuak. Denbora gutxian Porto Alegre bilakatu zen sinboloa. Izan ere, hantxe jarri baitzen martxan lehen-lehenik *Aurrekontu Parte-hartzaileen* esperientzia.

Aurrekontu parte-hartzaileak hasieratik herritar guztiei irekirik zegoen prozesu parte-hartzailea izateaz gain, beste hiru elementu berritzaile biltzen zituen: lotesleak ziren hartutako erabakiak (udalaren konpromisoa), aurrekontuak osotasunean ziren lan-esparrua (Euskal Herrian ohiko bilakatutako kulturaren eta aisiaren sektoreetako aurrekontu-partaidetza gailenduz), eta azkenik, ikuspegi eraldatzaile batek gidatzen zuen prozesu guztia, ahulenen aldeko birbanatze-politika sozialistak bultzatzeko. Horregatik, desberdina zen oso Porto Alegreko esperientzia ordura arte egondakoekin alderatuta. Elementu berritzaile askok bat egiten zuten milioi biztanle baino gehiagoko hirian; azken horrek eskatzen zuen deszentralizaziorako konpromiso eta gaitasunarekin.

Denbora gutxian, *Sozialismo errealeko* herrialdeei bizkarra eman eta Porto Alegren lausotu zuen begirada ezkerrek. Egungo sistemari alternatiba eraikitzerik bazegoela erakutsi zuen, eta hau, herri eta hirietatik, oinarritik, egin zitekeela sinetsarazi zuen esperientzia hark. Horregatik, demokrazia ordezkatzailak alternatiba *demokrazia parte-hartzailean* zuela sinetsi zuten askok; eta noski, ondorioz, Porto Alegre izendatu<sup>1</sup> zen “Demokrazia parte-hartzailearen munduko hiriburu”.

Aurrena izan zen Porto Alegre aurrekontu parte-hartzaileak martxan jartzen, baina ez azkena: 1990ean Montevideo izan zen bigarrena *Frente Amplio* ezkerreko koalizioaren garaipenari esker; ondoren, Brasilgo hiri asko batu ziren (2004ko udal-hauteskundeak baino lehen Brasilgo 144 hiritan zeuden aurrekontu parte-hartzaileak); Buenos Aires, Rosario, Cordoba eta zenbait hiri txikiago Argentinan; Keralako eta Bengalako estatu indiarretan; Kanadako hiri gutxi batzuetan (Toronto...); Frantziako zenbait hiri ertainetan (Nanterre, Saint-Denis...); Estatu espainiarreko hiri eta herri gutxi batzuetan (Kordoba, Puente Genil, Rubí, Las Cabezas de San Juan...); Palmela (Portugal)... Eta Euskal Herrian ere bai (Hernani, Dima, Donostia...).

## 2. Proposamen berriak ezkerretik

Hamarkada askotan, sozialismoaren maskarapean aritutako diktadura estalinistek zipriztindu zituzten ezkertiarren eztabaidak. Makropolitikak zuen garrantzia orduan. Boterearen (Estatuaren) konkista *eskatzen* zuen etorkizun komunistak, eta horretarako desberdinak izan zitezkeen bideak: inbasio militar sobietarrak, iraultzak edo hauteskunde-garaipenak. Baina urteak joan ahala, oztopo bilakatu ziren hiru aukera horiek. Potentzien arteko *oreka* mantendu nahi zuen sobietar botereak, eta bide batez, alternatiba autonomoak ekidin. Izan ere, *eraldakuntza sozialaren* pausoak zehatz-mehatz deskribatzen ziren garai horretan.

---

1. Bestelako mundu (demokrazia) bat posible zela erakutsi zuelako edo, Munduko Foro Sozialaren egoitza bilakatu zen Porto Alegre 2001ean. Foroak 2004an Indiako Mumbai bisitatu bazuen ere, Porto Alegre bueltatu da 2005ean. Baina, PTK 2004ko udal-hauteskundeetan alkatetza galdu ostean, zaila da ugarri sortu dira. Dena den, badirudi gobernu berria prest dagoela Aurrekontu Parte-hartzaileekin eta Foro Sozialarekin hartutako konpromisoak betetzeko. Ikuskizun dago zer gertatuko den.

Denak zuen erantzuna eta azalpena. Leku gutxi zegoen dudetarako ortodoxien paradisuan.

Porto Alegren, ordea, aurkakoak urratzen zuen bidea. Mikropolitika zen nagusi. Baieztapen gutxi zeuden, eta ondorioz, saldoka pilatu ziren dudak. Pertsonen egunerokotasuna zen lehenengo ardurak; eta horretarako, errezeta berrietarako prest behar zen izan. Bidea? Jakin ezean, bilatu (inprobisatu) behar. Bide horretan, “Aurrekontu parte-hartzaileen” esperientzia jarri zuten martxan 1989an, eta gerora, mundu osoko udaletxe askotan erabaki-prozesuak herritarrei irekitzeko eginiko esfortzuen nazioarteko isla bilakatu da. Aurretik saiakera ugari egin baziren ere, Porto Alegrekoak zabaldu zuen mundura bestelako demokrazia baten aldarria, bestelako mundu baten aldarria.

Latinoamerika osoan barreiatu da bandera hori. Ezkerreko politika berri bat mamitu da. *Ezker postautoritario berri*arentzako udal-maila ezinbesteko borroka-esparru bilakatu da. Demokrazia sakondu eta erradikalizatzeko aukera egin du (Estatu-mailako boterea eskuratzeko lehen pausu bezala). Sozialismo errealearen erorketari esker, Latinoamerikan ezkerrek udalerrietatik abiatuta proiektu politiko freskoagoak, autonomoagoak eta pragmatikoagoak jarri zituen martxan. Borrokaren epizentroa mugiarazi egin zuten. Orain ez da estatua epizentroa. *Ezker zahar*ean “masen abangoardiez” eta horien paperaz luze hitz egiten zen. Estatua zen aldaketaren agente nagusia eta ia bakarra ezker klasikoarentzat. Orain aldiz, hori aldatu da, abangoardia zegoen lekuan gizarte zibila kokatu da eta hau jantzi da garrantziaz. Estatuari dagokionez, duen garrantzia kendu gabe, dagoeneko ez da helburu nagusia eta eraldakuntzarako tresna bakar gisa ikusten da.

Testuinguru honetan, borroka kulturalak berebiziko garrantzia hartu du, eta horregatik, eskaera eta helburu itxi batzuen zerrenda baino areago, proiektu kontrakultural ireki eta askotarikoa aurkezten du ezkerrek. Estatuaren eta merkatuaren logikatik kanpo dagoen kultura politikoa da, eta oinarri du demokraziaren aldarrikapen ozena, arlo politiko, sozial eta ekonomikoan. *Estatuaren pribatizazioaren* aurrean, edo *gizartearen estatizazioaren* aurrean, Estatuaren eta gizartearen demokratizazioa proposatzen ari dira (Chavez eta Goldfrank, 2004:19).

Behin idatzi zuen Antonio Gramsci-k, botere politikoa hartzerik ez dagoela, aurretik botere kulturala eskuratu ez bada. Askok esplizituki, eta beste askok inplizituki, Gramsci-ren ideiekin bat egiten ari dira Latinoamerikan. Borroka kultural horretan, gizarte-, politika- eta ekonomia-harremanak aldatzeko aitzakiak bihurtzen dira prozesu parte-hartzaileak.

### 3. Mekanismo parte-hartzaileak

Prozesu parte-hartzaileak aitzakia bihur daitezke gizartea eraldatzeko<sup>2</sup>. Baina mekanismo guztiak ez dira zertan prozesu parte-hartzaileak izan. Horregatik, komeni da egitea une parte-hartzaileen eta prozesu parte-hartzaileen arteko lehen bereizketa bat. Lehenengoan, mekanismoak parte hartzeko une bat baino ez du aurrikusten. Eztabaida eta ideien trukaketa ez da zentrala, eta iraungitze-data du

---

2. Honek ez du esan nahi prozesu guztiak eraldatzaileak direnik.

mekanismoak. Bigarrenagoan, aldiz, parte hartzeko eta erabakitzeko uneak asko izaten dira; izan ere, horiek prozesu zabalago baten parte baitira. Denboran mugarik ez izateak eztabaida eta ideien trukaketa ahalbidetu dezake errazago.

Egin dugun bereizketak mekanismo baten izaerari buruzko pistak eskaintzen dizkigu. Halere, mekanismoaren izaeraz jabetu nahi badugu azterketa sakonago bat eginez, komeni da mekanismoak ikastea politika publikoen azterketa-eskema batekin.

### 3.1. Politika publikoen azterketa

Urte askotan, faseen eskema erabili izan dute politika publikoek azterketarako. Prozesu global bateko etapak direlakoan aurkeztu dira. Nire iritziz, ordea, faseak aldi berean jardun dezaketen ikerketarako dimentsioak dira. Eta ikerketa berriekin bat eginez, nahiago dut dimentsioez hitz egitea; izan ere, modu honetan prozesuak elkar daitezke dimentsioen aldibereko elkarrekintzak baztertu gabe (Ibarra, Martí eta Gomà, 2003). Ikus ditzagun jarraian zein dimentsioz ari garen:

- a. *Dimentsio sinbolikoa edo kontzeptuala*. Gaien edota arazoaren interpretazio eta eraikuntza intelektual eta diskurtsiboari dagokio: eskariak zehaztea, zenbait baliotan oinarrituriko diskurtsoak osatzea (sinismen-sistemak eta marko kognitiboa) eta, azkenik, ekintzarako agenda publikoak definitzea.

Beraz, partaidetzaren dimentsio honetaz arituko bagina, udalek noraino barneratu dituzten partaidetzaren beharra eta horren zehaztapena neurtu beharko genuke. Parte-hartzea bultzatzeko estrategia baten lehen pausoa litzateke. Zentzu horretan, partaidetza-araudi batez baliatzea izan daiteke adierazle bat, adibidez.

- b. *Dimentsio substantiboa*. Hau politika publikoen formulazioarekin eta erabakiak hartzearekin identifikatuko genuke. Hots, edukiak eta barneko aukerak negoziatu, eta azkenik, erabakien bitartez formalizatu eta bere isla juridikoa-rekin bukatzen den faseaz ari naiz. Hartutako estrategia zein mekanismo parte-hartzaile sortzearekin zehaztu den ikertzea litzateke gure kasuan: aurrekontu parte-hartzaileak, batzorde parte-hartzaileak, kontseiluak...

- c. *Dimentsio operatiboa*. Parte hartzeko mekanismoen inplementazio-prozesuari dagokio. Honen baitan zenbait programa, proiektu eta zerbitzu-mekanismo martxan jartzen dira. Kontzepzio tekniko hutsetik urrun, dimentsio honetan baliabideen kudeaketa edo ebaluazioari loturik partaidetzarako espazio berriak ireki daitezke. Betiere, interesgarriak suerta daitezkeenak politika horien berregitura egiteko garaietan.

Laburbilduz, udaletxe batean onar dezakete partaidetza-araudi bat, eta bere horretan utzi. Beste batzuetan, ordea, partaidetza-araudiarekin edo araudirik gabe, zenbait mekanismo parte-hartzaile sor ditzakete. Horietako askok izen berdina ere izango dute udalerrri desberdinetan. Baina horrek ezer gutxi argituko digu mekanismoaren dimentsio operatiboa aztertzen ez badugu. Azken batean, dimentsio operatiboa mekanismo parte-hartzaileen funtzionatzeko moduz arduratzen baita, besteak beste.

### 3.2. Mekanismo parte-hartzaileen dimentsio substantiboa

Gaur egun, handia da irudiek eta markek hartu duten garrantzia gizartean. Horregatik, herritarren partaidetza bideratzeko mekanismoak edota esparruak, izenez (kasu askotan markez) jantzi dira azken urteotan. Horrek, baina, ez du esan nahi partaidetza-molde guztiak izenda edo sailka daitezkeenik. Dena den, ikuspegi orokor bat edukitze aldera, sailkapen txiki bat proposatuko dugu jarraian. Joan Font-ek eta Ricard Gomà-k (Font, 2001) erabiltzen dutena du oinarri, baina, zenbait ñabardura eta egokitzapen egin dira honakoan.

Lau talde nagusi bereizten dira honako sailkapen honetan (ikus 1. irudia). Oinarri sozietatik mekanismo parte-hartzaileak dira lehenengo multzoa. Honek biltzen ditu antolatutako komunitateekin elkarrizketa bideratu, eta kasu batzuetan, komunitate horien partaidetza sustatu nahi dituzten esparruak. Ezaugarri nagusia litzateke, beraz, parte hartuko duten herritarrak antolatutakoak baino ez direla izango.

#### 1. irudia. Euskal Herriko udaletan erabiltzen diren mekanismo parte-hartzaile batzuk.

---

Oinarri sozietatik mekanismo parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Elkar teer kontseilusektorialak</li><li>- Auzo edo barrutiko udal-kontseiluak</li><li>- Plar integralak</li><li>- Zerbitzu eta zentro erkudeak eta sozietatiboa</li></ul>
Oinarri pertsonalek mekanismo parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Herreri Ekimer Legegilea (HEL)</li><li>- Erreferendua kontsultarako edo erabakitzeak zardaitzekeena</li><li>- Herritarren paimahaiak</li><li>- Herri-kontsultak</li></ul>
Oinarri mistok mekanismo parte-hartzaileak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Plar estrategikoak</li><li>- Tokiko 21 Agendak</li><li>- Komunitate-planak-Garapen Komunitarioa</li><li>- Aurrekontu parte-hartzaileak</li></ul>
Lurralde bater berezitasunelotutak mekanismoak
<ul style="list-style-type: none"><li>- Kontzeju (udalbatza historikoak) rekiak</li><li>- Herreri Batzarra (udabikietan)</li><li>- Arabak eskualdeak</li><li>- etab.</li></ul>

---

Iturria: Egileak landua.

80ko hamarkadan eta 90eko hamarkada hasieran, modan egon ziren oinarri sozietatik mekanismoak, batez ere, Estatu espainiarrean eta Hego Euskal Herrian. Ordukoak dira kontseilu edo batzorde sektorial asko. Bi eratara osatu ohi dira: interes sektorialengatik edo lurraldekoengatik. Erakunde publikoa (gehiene-tan udala) da antolatzailea, eta beraz, bera izaten da parte-hartzaileak gonbida-

tzen dituena<sup>3</sup>. Normalean, gai baten inguruan interesa duten talde antolatutako biltzen dira kontseilu sektorialetan (adibidez, ingurumenaren kontseilua, kulturako kontseilua, etab.). Lurraldekoetan aldiz, auzo (edo kale, barruti...) batean bizi direnak edota eragiten dutenak dira gonbidatuak.

Bigarren multzoari dagokionez, oinarri pertsonaleko mekanismo parte-hartzaileak biltzen dira bertan: herritar gizabanakoen partaidetza bideratzen dute, kontuan hartu gabe elkarre batera kide diren ala ez. Halere, baldintza hau betetzen duten mekanismoen artean desberdintasun ugari topa litezke. Horregatik, bereizten dira partaidetza intentsiboa eta estentsiboa. Lehenengoan, era trinko batez bideratzen da parte-hartzea, baliatuz informazioa eta eztabaidako deliberrazio-prozesuak. Bestalde, itxia izaten da partaidetza, alegia, ez dago herritar guztiei irekirik, baizik eta espresuki gonbidatutako herritarrei soilik.

Bigarrenak (estentsiboa), aldiz, partaidetzaren helburu zabal batekin, mekanismo parte-hartzaileetan ahalik eta herritar gehien batzea izango luke helburu. Azken horren adibide bat, zuzeneko demokraziari loturiko teknikak (erreferendumak, kontsultak, batzarrak...) izango lirateke.

Lehenengo bi multzoez gain, definitzeko zailagoak diren beste bi ageri zaizkigu. Pertsonen eta elkarten partaidetza konbinatzen duten mekanismoak oinarri mistokoak izango lirateke. Nahiz eta horien artean sailkatu ditugun asko eta asko barne-funtzionamenduaren arabera sailkatu beharko genituzkeen. Aurrekontu parte-hartzaileak, adibidez, hemen sailkatu ditugu oinarri mistokoak izan ohi direlako gurean. Halere, funtzionamendu eta diseinu desberdinak dituen mekanismo honek toki bakoitzean; eta horregatik, Hego Amerikan oinarri indibidualekoa izaten da ohikoena.

Sailkapen honetan, lurralde baten berezitasunei lotutako mekanismo parte-hartzaileak ditugu azkenik. Horien artean asko dira jatorri historikoak dituztenak. Adibide gisara, Euskal Herriko hegoaldean dauden udalbatza (kontzeju) irekiak aipa daitezke<sup>4</sup>. Horiek, baldintza berezi batzuk betetzen dituzten herri txikiak duten berezitasuna dira. Horien arabera, ez da demokrazia ordezkatzaileraren bitartez eratutako udal-antolaketa; eta bai ordea, zuzeneko demokrazian oinarrituz. Udaletxean, beraz, herritarren batzar batek hartzen ditu erabakiak.

### **3.3. Mekanismo parte-hartzaileen dimentsio operatiboa**

Bigarren irudian, zenbait aldagai proposatzen dira mekanismo parte-hartzaileen dimentsio operatiboa azaltzeko. Gehiago ere badaude, baina, uste dut hauek lehen hurbiltze bat egiteko interesgarriak direla. Lehenengoak, adibidez, partaidetza-

---

3. Eraketak badu garrantzia, eta honetan, mota guztietako adibideak topa daitezke. Batzuek, batzar-ereduetatik gertu, gonbidapen oso irekiak egiten dituzte; beste batzuek, ordea, gonbidapenak murriztu eta normalean, beraien aldeko gizarte-mugimendu eta elkarten artean banatzeko ohitura adierazten dute. Bi muturretako eredu hauen artean, aldiz, askotariko tarteko kasuak aurki daitezke. Dena den, kontseilu hauetan beti da eztabaidagai kolektiboek islatzen duten gizartearen ordezkagarritasun-maila. Azken horretarako, kontseiluan parte hartzeko nola izan diren hautatuak garrantzia izan dezake: udal-izendapena, zuzeneko izendapena, elkarten ordezkariak, batzarrak...

4. Estatu espainiarreko konstituzioaren 140. artikulua ezagutzen ditu udalbatza irekiak lehen unean, eta gero, beste hainbat legetan arautzen den eskubidea da. Horregatik, erkidego batetik bestera ñabardura ugari daude. Dena den, artikulua honen xedea ez da horiek guztiak ezagutaraztea.

guneek duten funtzioa aztertzen du. Bost bereizten dira: informatiboa (bi noranzkoetan funtziona dezake: erakundeek informatu egiten dituzte herritarrek behe-ranzkoan, eta aldiz, herritarrek informatzen dituzte erakundeak goranzkoan); kontsultarakoa (parte-hartzaileek euren iritzia adierazteko balio duena); koerabakitzaila (parte-hartzen duten herritarrekin adostu behar denean erabakia); erabakitzaila (mekanismo parte-hartzailearen esku dagoenean erabakia, adibidez, erreferendum bat), eta kogestikoa (kudeaketan eta inplementazioan ardurak hartzen dituztenean parte-hartzaileek).

## 2. irudia. Partaidetzaren dimentsio operatiboa.

<p>1.-Funtzi<del>o</del>zandaiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Informatiboa: goranzkoa / beheranzkoa</li> <li>b) Kontsultarakoa: derrigorrezkoa / borondatezkoa</li> <li>c) Koerabakitzaila</li> <li>d) Erabakitzaila</li> <li>e) Kogestikoa</li> </ul> <p>2.-Irismen<del>o</del>zandaiteke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Ad hoc</li> <li>b) Sektoriala</li> <li>c) Globala (transbertsala)</li> </ul> <p>3.-Kapital sozialaren berproduktzioa / (auto)sortzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Erreala</li> <li>b) Unekoa / Zalantzazkoa</li> <li>c) Irreala</li> </ul> <p>4.-Partaidetzaren eraginkortasuna</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Eraginerreala: eraginkortasun handia / txikia</li> <li>b) Izaera sinbolikoa</li> </ul>
---

Iturria: Egileak landua.

Irismenari dagokionez, gai sektorialez, globalez edo *ad hoc*<sup>5</sup> sortutakoak trata ditzake mekanismo parte-hartzaileak. Kapital sozialaren berproduktzioa<sup>6</sup>, berriz, kasu batzuetan unekoa baino ez da izango (mekanismoa martxan jartzearekin gertatzen da, baina denboran aurrera egin ahala, efektua desagertzen da), eta beste batzuetan egiazkoa edo irreala. Eta azkenik, eraginkortasunaren inguruko aukerak jasotzen dira sailkapenean.

5. Arazo bat edota gatazka bat sortzen denean, hori espresuki konpontzeko edo bideratzeko sortzen den mekanismo parte-hartzailearen irismenari deitzen diogu *Ad hoc*. Adibidez, Urbina Maltzaga autopistako proiektuaren aurkako mugimendua sortu zenean, *ad hoc* irismena zuen mekanismo parte-hartzaile bat erabili zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak: Interbentzio-gune parte-hartzaileak.

6. Elkarten sarea hazteaz ari gara termino honekin.



#### 4. Demokrazia parte-hartzailea

Demokrazia parte-hartzailea ez da letra larrietan jartzeko hitza. Askotan, demokrazia parte-hartzailea jartzen da mutur batean eta ordezkatzailea beste batean, besterik ez balego bezala. Eskema honetan demokrazia parte-hartzailea zuzeneko demokraziarekin parekatzen da ia osoki. Baina errealitatea aberatsagoa da. Egokiena litzateke mutur batean demokrazia ordezkatzailea jartzea, eta bestean, zuzenekoa. Irudikatutako bi kategoria absolutu hauen bitartez, 3. irudia osatu dut. Modu honetan, era argiago batez ikusiko da parte-hartzea graduazio-kontu bat dela. Hau da, *continuum* bat egongo litzateke bi mutur horien artean. Eta alde batera edo bestera egiten den heinean (partaidetzazko esparruak zabalduz, adibidez), sistema parte-hartzailegoa izango da, edo parte-hartze txikiagokoa.

#### 3. irudia. Partaidetza-graduak sistema demokratikoetan.

Ordezkapenezko Demokrazia

Zuzeneko Demokrazia

(Demokrazia parte-hartzaileagoa) ▶

Iturria: Egileak landua.

Izan ere, hauteskundeetatik harago doan herritarren parte-hartzea ez da berria munduan. Ia ezinezkoa litzateke ordezkapenezko mekanismoekin soilik kudeatzen den sistema bat aurkitzea. Baina bereiz daitezke partaidetza-esparru edo -mekanismo gehiago edo gutxiago dituzten herrialdeak.

Suitza izan da eredu historiko bat urtetan, demokrazia ordezkatzailea zuzeneko mekanismo askorekin uztartu duelako. Baina zergatik kasu horretan ezker berriak ez du aldarrikatu Suitzako eredia alternatiba gisa? Izan ere, partaidetzak ez baitu halabeharrez esangura progresista bat adierazi behar. Suitza bera dugu adibiderik garbiena. Erreferenduma maiz erabiltzen da herrialde honetan; baina ia beti jarrera atzerakoiei eusteko erabili da, munduko beste zenbait herrialdetan bezala (Blas, 2004:261)<sup>7</sup>.

Horregatik, ezkerak Latinoamerikara jo du eredu berri bila. Hego Amerikatik datozen mugimenduek, hain zuzen, arazoen ikuspegi orokorra edukitzearen garrantzia azpimarratzen dute askotan. Dena den, demokrazia parte-hartzaileak, gaur egun ezagutzen dugun bezala behintzat, ez du sistema aldatzen. Ez da kasualitatea Munduko Bankuak eta Nazio Batuen Erakundeak aurrekontu parte-hartzaileak bezalako mekanismoak gomendatu izana; edota Europar Batasunak honelako kontuak sustatzeko urtero dirua xahutzea. Izan ere, honen guztiaren dimentsio erreformista bat bada. Horren arabera, demokrazia parte-hartzaileak administrazioak eraginkorrago bilakatzen ditu, eta pentsatzen dute, oro har, demokrazia ordezkatzailearen osagarri interesgarria izan daitekeela.

Beste dimentsio erradikalago batekin, berriz, badira mundu globalizatu hau zuzentzen duten indar neoliberelei aurre egiteko baliagarri den tresnatzat hartzen dutenak demokrazia parte-hartzailea. Erabaki garrantzitsuak merkatuak hartzen

7. Suitzan, adibidez, emakumeek ez zuten botorako eskubidea lortu 60ko hamarkada arte, behin eta berriro erreferendumetan ukatua izan zitzaielako. Beste adibide bat dago Ljbljanan (Eslovenia), meskita musulman bat eraikitzearen aurka erreferenduma antolatatu nahi dute han.

ditu. Baina erabakiak era parte-hartzaileagoan hartu behar direla proposatzeak, azken batean, merkatuaren erabakitze-ahalmena murriztea da.

Joera desberdinak antolatze aldera, erakundetutako partaidetza-mailak antolatzen dituen tipologia aurkeztuko dut jarraian:

1. maila. Partaidetza kosmetika bezala ulertua. Honetan, parte-hartzea erabiltzen da aurretik hartutako erabakiak legitimatzeko edota gizarte-kritika indargabetzeko.

2. maila. Partaidetzaren ikuskera populista<sup>8</sup>. Kosmetika saio bat baino gehiago egiten du botereak. Bi motibo nagusi biltzen dira partaidetzaren ikuskera honen atzean. Bata *gatazkaren prebentzioak* gidatzen du. Horrela, gatazkaren bat sor daitekeelako sumorik bada, partaidetza bideratzeko mekanismoak erabil daitezke (jarrera proaktiboa). Eta bestea, gehiengoak izan dezakeen iritzien aurka ez egiteko erabiltzen diren mekanismoak. Batez ere, politikoki egokia ez denean. Kasu horretan, botereak gustura hartuko luke gehiengoak duen iritzia, baina politika-egokitasunak eskatuta, ezin dute horrelako erabakirik hartu. Irtenbide gisa, erabakiaren pisua herritarrengan utzi egiten dute erreferendum bidez.

3. maila. Partaidetza eraginkortasuna erdiesteko tresna gisa<sup>9</sup>. Administrazioaren kudeaketa hobetzea da helburu nagusia: deszentralizazio-politikak bultzatuz (herritarrenganako gertutasuna bultzatzeko); gardentasun administratiboa bilatuz; gizartearen iritzia jasoz; administrazioen erabaki eta inplementazio-moduak ulertaraziz; informaziorako bide eraginkorrak bultzatuz; etab. Benetan sinesten dute herritarren partaidetzak laguntzen duela lan horretan. Administrazioaren kontrol soziala osasungarria dela azpimarratuz, administrazioak kontu-emateak burutzea goraipatzen dute (*accountability*). Horrek kasu askotan erreforma administratiboa eskatzen du. Eta beraz, oso lotuta ageri da gestio publiko berriaren (*New public management*) ideologiari.

4. maila. Kogestiorako partaidetza<sup>10</sup>. Aurreko kudeaketa administratiboaren hurrengo pausua litzateke. Honetan, zenbait programa publiko eta politika publiko kogestionatuak izaten dira gizartearen eta administrazioen artean. Estatuaren beste ikuspegi erreformista bat da. Baina kasu honetan estatua parte-hartzean oinarrituz (kogestioan) sektore pribatuarekin lehiatzeko prestatzen da; horrela, bada, merkatuaren pisua parte-hartzeagatik erlatibizatzen da. Erabakiak ez dira merkatuaren interesen esku egon behar, baizik eta herritarren esku. Modu berean, pribatizazioen aurrean, gizartearen eta estatuaren arteko kudeaketa parte-hartzailea proposatzen da ekonomia pribatuarekin lehiatzeko.

5. maila. Eraldakuntza sozialerako partaidetza<sup>11</sup>. 3. eta 4. mailan proposatzen diren eraldakuntzak, onartu bai, baina urrunago doa partaidetza-maila hau. Sakoneko aldaketak bultzatzeko prozesu parte-hartzaileez ari gara hemen.

---

8. Ez halabarrez, baina oro har, politikaren ikuspegi liberal edota populista autoritarioa dutenek erabiltzen dute. Baita ere, pertsonalismoa indartzen duten alkateek.

9. Politikoki liberalismoa berrindartzeko joera politikoei lotutako jarrera da. Adibidez, bide hau urratu dute laborismo berriak bultzatutako erreformek: hobekuntza administratiboa, gardentasuna...

10. Sindikatuak, alderdi sozialdemokrata batzuk, eta oro har, indar progresista moderatuak.

11. Ezkerreko mugimenduetatik datozen proposamenak.

Eraldakuntza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoa erdietsi nahi da. Egungo ordena sozialari buelta emateko tresna gisa azaltzen da partaidetza.

Parte-hartzeak, beraz, ez du halabeharrez beste sistema bat ekarriko (askok sinesten duten bezala); baina demokraziaren zentzu errealenera gerturatuko gaitu. Izan ere, egun demokraziaz ulertzen duguna, *Status quo*aren defendatzaile nagusietako batek, Robert Dahl politologoak, dioen moduan, ez da demokrazia, partitokrazia baizik (Dahl, 1999).

## Bibliografia

- Abers, R. N. (2000): *Inventing Local Democracy. Grassroots Politics in Brazil*. Boulder, Lynne Rienner Publishers.
- Aguiar, F. eta Navarro, C. J. (2000): "Democracia y participación ciudadana en los municipios: ¿un mercado político de trastos?" *REIS*, **91**, 89-111.
- Barzelay, M. (2001): *The New Public Management*, University of California Press, Berkeley.
- Blas, A. (2004): *Atzoko eta gaurko harresiak*, Txalaparta, Bilbao.
- Botella, J. (1999): *La ciutat democrática*, Ediciones del Serbal, Bartzelona.
- Budge, I. (2000): "Deliberative democracy versus direct democracy - plus political parties!", *Democratic Innovation. Deliberation, representation and association*. M. Saward. Londres, Routledge: 195-209.
- Chavez, D. eta Goldfrank, B. (argitaratzaileak) (2004): *La izquierda en la ciudad. Participación en los gobiernos locales de América Latina*, Icaria, Bartzelona.
- Dahl, R. (1999): *La democracia, una guía para los ciudadanos*, Taurus, Madril.
- Font, J. (arg.) (2001): *Ciudadanos y decisiones públicas*, Ariel, Bartzelona.
- Font, N. eta Subirats, J. (2000): *Local y Sostenible. La Agenda 21 Local en España*, Ariel, Bartzelona.
- Ganuzá, E. eta Alvarez, C. (2003): *Democracia y presupuestos participativos*, Icaria, Bartzelona.
- Ibarra, P.; Martí, S. eta Goma, R. (koordinatzaileak) (2003): *La democracia radical. Movimientos sociales y redes de políticas en Euskadi y Cataluña*, Icaria, Bartzelona.
- Linz, J.J. eta Stepan, A. (1987): *La quiebra de las democracias*, Alianza, Madril.
- Manin, B. (1998): *Principios de gobierno representativo*, Alianza, Madril.
- McLaverty, P. (1999): "Towards a Model of Public Participation", *Participation Beyond the Ballot Box. European Case Studies in State-Citizen Political Dialogue*, U. Khan, Londres, UCL Press: 23-42.
- Santos, B. (2003): *Democracia y participación. El ejemplo del Presupuesto Participativo*, El Viejo Topo, Bartzelona.
- Sartori, G. (1998): *Homo Videns. La sociedad teledirigida*, Taurus, Madril.
- Subirats, J.; Blanco, I. et al. (2000): *Experiències de participació ciutadana en els municipis catalans*, Escola d'Administració Pública de la Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- Tarso, G. eta De Souza, U. (1998): *Presupuesto participativo. La experiencia de Porto Alegre*, Editorial Universitaria de Buenos Aires, Buenos Aires.

